


3. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa berri bat sortzerako orduan, zailtasun ohikoetako bat, proiekturako finantziazioa aurkitzea izaten da. Finantziazioa, modu desberdinetan lor daiteke, adibidez; enpresa kideen dirua, maileguak edo diru laguntzak. Gure kasuan dirulaguntzak jasotzen saiatuko gara, gazteak garelako eta dirua lortzea zailagoa delako.



Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria, Zuzendaritzak Gazteak Auzolanean dirulaguntza-programa dauka. Helburua gizartearen aldeko proiektu kolektibo bat sortu eta garatu nahi duten 18 eta 30 urte bitarteko gazteei babesa ematea da.

Aurten 25.000 euroko dirulaguntza onartu dute. Aurkeztutako proiektu guztietatik 5 aukeratuko dira, eta horietako bakoitzak 1.500 € eta 5.000 € arteko laguntza jasoko dute. 2023 eta 2024ko ekaina bitartean garatu ahal izateko.

Diru Laguntzak eskatzeko baldintzak:



- 18-30 urteko pertsonak osatutako talde bat izatea (gutxienez, 3 lagun).
- Irabazi-asmorik gabeko proiektua burutzea.
- Proiektua urtebetean garatzea.
- Proiektua honako arlo batean edo batzuetan kokatuta egotea:
 - Proiektu artistikoak edota kultural-komunitarioak.
 - Ingurunearen zaintza eta jasangarritasuna oinarri duten proiektuak.
 - Genero-berdintasuna, euskara, kulturartekotasuna, elkartasuna eta beste alorretan oinarritutako gizarte edo komunitatearen eraberritze-proiektuak.

Gure proiekturako dirua lortzeko beste aukera bat mailegu bat eskatzea da:



MAILEGUAK

Hainbat banku entitatetan gazte ekintzaileentzako maileguak eskaitzen dizkigute eta kondizioak nahiko onak izaten dira. Adibidez, BBVA bankuan, itzulerarik gabeko mailegu bat eskaintzen digute, aukera ederra izango da gure proiektuari hasiera emateko. (Eskatu behar dugun mailegua 21.000€ eurokoa da)

Nola eskatu dezakegu itzulerarik gabeko maileguak eta zer baldintza bete behar ditugu?

- Hasi behar dugun proiektua zehazki azaldu behar diogu bankuari.
- Udalen, autonomia erkidegoen eta Estatuko eta Europako erakunde publikoen deialdietan dauden aukerak kontsultatu beharko ditugu.
- Kanal ofizialetan diru-laguntza eskatzea, eskura dagoen informazio guztia kontsultatu ondoren.
- Eskatutako dokumentazioak garaiz prestatzea eta guztia batera aurkeztea.
- Eskatzen diren baldintza fiskalak betetzen direla egiaztatzea, adibidez, Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketak egunean izatea.